

KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2020ko otsaila

Aurkibidea

1. BPGaren aurrerapena
2. Lan merkatua
3. Inflazioa
4. Enpresen konfiantza
5. Inguruneko hazkundera
6. Ekonomia aurreikuspenak
7. Hilabeteko laburpena

Eranskina

1. EAEko ekonomia %2,2 hazi zen 2019ko laugarren hiruhilekoan.

Enplegua %1,3 handitu zen iazko azken laurdenean.

2. Lan merkatuaren balantzea positiboa izan da 2019an.

Enplegu tasa %51,2ra igo zen eta langabezia tasa %9,6ra jaitsi.

3. KPIa %1,2an kokatu da 2019ko amaieran, erregaien garestitzeagatik.

Hala ere, petrolioaren prezioa asko jaitsi da urtarrileko azken egunetan.

4. EAEko enpresen konfiantza aldaketa handirik gabe mantendu da urtearen hasieran.

Oraingo hiruhilekoari buruzko aurreikuspenak onak dira, baina ez aurreko aldietakoak bezain baikorrak.

5. Ziurgabetasunak munduko ekonomia kaltetu zuen 2019an.

Herrialde nagusi guztiek 2018an baino gutxiago handitu zuten BPGa.

6. Munduko ekonomia egonkortzen ari da.

NDFk 2020rako eta 2021erako hazkunde aurreikuspena zertxobait jaitsi du.

7. Hilabeteko laburpena.


2019ko balantze ekonomikoa.

EAEko ekonomia % 2,2 hazi zen 2019ko laugarren hirulekoan

BARNE PRODUKTU GORDINA Urte arteko aldakuntza tasa

BARNE PRODUKTU GORDINA. 2019


+ %2,2




Eustatek argitaratu dituen kontu ekonomikoen aurrerapenak adierazten du EAEko ekonomia laugarren hiruhilekoan %2,2 hazi zela. Eraitza hori eta urteko lehen hiru hiruhilekoetan erregistratutakoak oso antzekoak dira. Horri esker, 2019ko BPGaren hazkunde tasa ere %2,2 izan zen. Tasa hori aurreko lau urteetan lortutakoa baino txikiagoa da, baina nabarmen gainditzen ditu Europako ekonomia nagusietan lortutako erregistroak.

Hiruhileko bilakaerak iradokitzen du ekonomiaren moteltzea, nagusiki, 2018an zehar gertatu zela, baina behin 2019. urtea hasita, erritmoa egonkortu egin dela. AEBen eta Txinaren arteko merkataritza gerrak sortutako ziurgabetasuna, eta brexit-aren inguruko akordiorik eza izan ziren eragile ekonomikoen erabakietan eragin handiena izan zuten mehatxuak.

BARNE PRODUKTU GORDINA Urte arteko aldakuntza tasa



BARNE PRODUKTU GORDINA Hiruhilabete arteko aldakuntza tasa




ENPLEGUA GUZTIRA

Urte arteko aldakuntza tasa

ENPLEGUAREN HAZKUNDEA. 2019

+%1,6



Kontuen aurrerapenak adierazten du BPGren hazkundera zerbitzuen sendotasunean eta industria bizitzen ari den hobekuntzan oinarritzen dela, nahiz eta sektore horrek oraindik nazioarteko merkataritzaren galgaren ondorioak eta automobilgintzak emisioen araudi berrira eta trantsizio energetikora egokitzeko dituen zailtasunak nozitzen jarraitzen dituen.


2019an, enpleguaren hazkundera %1,6koa izan zen urteko batez bestekoan, aurreko lau urteetan jasotako balioen azpitik, guztiak %2,0tik gorakoak izan baitziren. Hala ere, tasa horrek lanaldi osoko 15.600 lanpostu inguru ekonomiari gehitzeko balio izan du. Orobat, adierazi behar da krisialdian zehar galdu ziren 120.000

enpleguetatik, jadanik 100.000 enplegu inguru berreskuratu direla.

Hiruhilekoen bilakaera apaltze argikoa da, 2018ko bigarren hiruhilekoan urte arteko balioa %2,8koa izatetik 2019. urteko laugarren hiruhilekoan %1,3koa izatera igaro baita. Erritmo egonkorrekin hazten ari den BPGren eta intentsitate txikiagoarekin handitzen ari den enpleguaren konbinaketaren ondorioz, itxurazko produktibitatea 2018koa baino handiagoa izan da. Zehazkiago adierazita, hasierako kalkulu batek %0,6an kokatzen du produktibitatea, 2018ko %0,4aren gainetik, baina ez da %1,0ra iristen, 1995etik izan duen batez besteko balio historikoa hori baita.


ENPLEGUA

Urte arteko aldakuntza tasa



ENPLEGUA

Hiruhilabete arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eustat.



Lan merkatuaren balantzea positiboa izan da 2019an

2019ko laugarren hiruhilekoaren BJA inkesta argitaratu izanak urte osoaren lehen balantzea egiteko aukera ematen du. Estatistika horren arabera, 16 urtetik gorako biztanleen urteko batez besteko enplegu tasa %51,2 izan zen, azken hamaika urteetako baliorik altuena dena. Hala ere, krisiaren aurreko urteetan zegoen portzentajea ez da oraindik berreskuratu, %52tik eta %53tik gorako datuak jaso zirelako.


2019ko aurrerapenak bi generoei egin die mesede. Izan ere, emakumeen enplegu tasa %46,6ra igo da, eta gizonena, berriz, %56,2ra. 16 urtetik gorako biztanle guztiak kontuan hartu beharrean, kalkulua 16 eta 64 urte bitarteko biztanleentzat egiten bada, ateratzen diren tasak honako hauek dira: %68,5 guztientzat, %64,6 emakumeentzat eta %72,5 gizonentzat.

ENPLEGU TASA GUZTIRA

Urte arteko aldakuntza tasa

16 URTEKOAK EDO GEHIAGOKOAK

%51,2





ENPLEGU TASA. EMAKUMEAK

Urte arteko aldakuntza tasa


ENPLEGU TASA. GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa



LANGABEZIA TASA. GUZTIRA

Urte arteko aldakuntza tasa




BJaren beste aldagai garrantzitsu bat langabezia tasa da eta 2019. urte osoko batez bestekoa %9,6koa izan zen, azken urteetako txikiena baita, nahiz eta kasu honetan ere ez dira berreskuratu krisiaren aurreko balio bikainak.

Langabezia tasaren jaitsiera emakumezkoen zein gizonezkoen artean gertatu da. Lehen kasuan, 2019. urteko tasa %10,5ekoa izan da, 2018ko datua baino sei hamarren txikiagoa. Gizonen kasuan, bederatzi hamarrenetaraino iristen da murrizketa eta lortutako balioa %8,7koa da.

LANGABEZIA TASA. GAZTEAK


Urte arteko aldakuntza tasa



Beharakada orokor horren salbuespena gazteen langabezia da, hiru urte baitaramatza %20,0ko tasaren inguruan trabatuta. Zehatz-mehatz adierazita, 2019an, kolektibo horren langabezia tasa %20,7 izan zen. Gogoratu behar da kolektibo horrek lan merkatuan duen parte-hartzea txikia dela (%26,9), 16 eta 24 urte bitarteko gazte gehienak hezkuntza sisteman prestakuntza jasotzen ari baitira. Izan ere, EAEn adin horietakoak diren 180.000 gazteetatik 9.500 baino ez daude langabezian.


LANGABEZIA TASA. EMAKUMEAK

Urte arteko aldakuntza tasa



LANGABEZIA TASA. GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eustat.

KPIa %1,2an kokatu da 2019ko amaieran, erregaien garestitzeagatik

KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



Kontsumo prezioek lau hamarren egin zuten gora EAEn 2019ko azken hilekoan, erregaien prezioen igoerak eraginda. Hori horrela izanda, abenduko KPIaren urte arteko tasa %1,2 izan zen, hau da, 2016tik abenduko hileko batean jaso den erregistrorik altuena. Hala eta guztiz ere, 2019an, urteko batez besteko tasa (%1,0) aurreko urteetako baino txikiagoa izan zen.


KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2018	2019	Abendua 2019	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	1,6	1,0	1,2	1,2
Azpiko inflazioa (%81,4)	0,9	1,0	1,3	1,1
- Elikagai landuak (%13,6)	0,9	0,6	1,3	0,2
- Industria ondasunak (%24,8)	-0,1	0,3	0,5	0,1
- Zerbitzuak (%43,0)	1,5	1,6	1,8	0,8
Hondar inflazioa (%18,6)	4,6	0,8	0,5	0,1
- Landu gabeko janariak (%7,6)	2,9	1,3	2,8	0,2
- Energia (%11,0)	5,9	0,4	-1,1	-0,1


AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



BRENT MOTATAKO PETROLIO UPELAREN EGUNEKO PREZIOA

Dolarrak upeleko



KPlak hilabete horretan izan zuen igoera petrolioaren upelaren prezioak eragin zuen, maiatzetik izan duen baliorik altuena abenduan jaso zuelako, hilabetearen zati handi batean 70 dolarretik gorako kotizazioa izan baitzuen, AEBen eta Iranen arteko tentsio belikoaren ondorioz. Horregatik, inflazio tasa handiena izan zuen taldea garraioarena izan zen (%5,7). Hala eta guztiz ere, lehen-gai hori 60 dolarretik jaitsi da azken egunetan, Txinatik datorren koronabirusaren hedapenaren

beldurraren ondorioz, joan-etorriak murriztea eta petrolioaren eskaria jaitea ekarriko lukeena. Garraioarekin batera, elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak izan ziren gehien igo zirenak, %2,1ean kokatuz, lekale eta barazki freskoen prezioen igoeragatik. Aitzitik, inflazioa moteltzen gehien lagundu zuen taldea etxebizitzarena izan zen, %5,2ko jaitsierarekin, elektrizitatean izandako merkatze nabarmenaren ondorioz.

KPI TALDE NAGUSIAK

Urte ateko aldakuntza tasa. 2019ko abendua

	Euskadi Abendua	Espania Abendua	Euskadi urteko batez bestea	Espania urteko batez bestea
INDIZE OROKORRA	1,2	0,8	1,0	0,7
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	2,1	1,7	0,9	1,0
Edari alkoholdunak eta tabakoa	-0,2	0,4	0,3	0,7
Jantziak eta oinetakoak	0,9	0,9	1,0	0,9
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	-5,2	-5,0	-1,4	-1,4
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	1,1	0,6	1,0	0,7
Osasuna	1,3	0,5	0,4	0,8
Garraioa	5,7	4,0	2,7	1,2
Komunikazioak	0,7	0,7	0,9	0,8
Aisia eta kultura	0,6	0,1	-0,2	-0,5
Hezkuntza	1,4	0,9	1,0	1,0
Jatetxeak eta hotelak	1,8	2,0	1,9	2,0
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	1,5	1,4	1,6	1,4

Iturria: INE eta Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa.



ENPRESARIEN KONFIANTZA

Enpresen konfiantza aldaketa handirik gabe mantendu da urtearen hasieran


INEk enpresen konfiantzari buruz argitaratu duen aurtengo lehen hiruhilekoaren informazioak adierazten du EAEn baikortasunari eusten zaiola, 2018ko amaierarekin alderatuta ia aldaketarik gabe. Zehatz-mehatz azalduta, adierazle hori, 2013ko lehen hiruhilekoan lortutako erantzunetatik 100 balioa hartzen duena, 131,4koa da orain, 2018ko lau hiruhilekoetatik hirutan erregistratutakoen oso desberdina ez den balioa bai-

ta (salbuespena hirugarren hiruhilekoa izan zen, harrigarriki oso altua izan zelako). Aurreko urteekiko aldakuntza ere txikia da, 2016. urtearen hasieratik erregistratutako balio gehienak 130 eta 137 artean baitaude. Egonkortasun erlatibo hori deigarria da bereziki azken bi urteetan bizi izan diren ziurgabetasuneko gertakariak kontuan hartzen badira.


ENPRESARIEN KONFIANTZA INDIZE HARMONIZATUA. EUSKADI

LEHEN HIRUHILEKOAREN DATUA


131,4



AMAITU BERRI DEN HIRUHILEKOAZ DUTEN IRITZIA




HASI DEN HIRUHILEKOAZ DUTEN IRITZIA



ENPRESARIEN KONFIANTZA INDIZE HARMONIZATUA. ESPAINIA

LEHEN HIRUHILEKOAREN DATUA

130,6




Ziurgabetasun hori gehiago antzematen da konfiantza indizearen bi osagaietako bakoitzean, gora-behera esanguratsuenak izan baitira beren bila-kaeran. Izan ere, aurreko hiruhilekoari buruzko pertzepzioa - 3,1 balio negatibo batetik balio positibo batera (1,0) igaro zen. Bestalde, hiruhileko hasi berriarekiko igurikimenak aldekoak dira (2,8), baina aurreko hiru aldietan izan zirenak baino apur bat ezkorragoak.


Datuak Estatuko batez bestekoarekin alderatzeak antzeko konfiantza maila dagoela adierazten du, batez besteko hori 130,6koa baita, puntu bat bai-

no gutxiagoko aldearekin. Aipatutako bi osagai horietatik, Estatuan, oro har, datu hobea dago aurreko hiruhilekoko egoerari dagokionez (1,9), baina hasi berri den hiruhilekoarekiko igurikimenak nabarmen okerragoak dira (-5,9). Izan ere, azken datu hori 2016ko lehen hiruhilekotik jaso den erregistrorik txarrena da. Agian, Espainian gobernu berria osatzeko negoziazioek, inkesta egiteko unean egiten ari baitziren, eragina izan dute estatistika eragiketa horren emaitzak adierazten duen etorkizun hurbilarekiko mesfidantza horretan.

AMAITU BERRI DEN HIRUHILEKOAZ DUTEN IRITZIA



HASI DEN HIRUHILAKOAZ DUTEN IRITZIA



Iturria: INE.




INGURUNERAKO BPG-AREN HAZKUNDEA

Ziurgabetasunak munduko hazkundera kaltetu zuen 2019an

MUNDUKO EKONOMIAREN BPGA

MUNDUKO BPG-A. 2019

+ % 2,9




Orain arte argitaratutako adierazle ekonomikoen arabera, munduko ekonomiak %2,9 egin zuen gora 2019an, hots, aurreko urtean baino zazpi hamarren gutxiago. AEBen eta Txinaren arteko merkataritza tentsioek eragindako ziurgabetasunak, Erresuma Batua Europar Batasunetik ateratzeko prozesu gorabeheratsuak eta araudi berriak automobilgintzan ekarri zuen krisiak eragina izan zuten konfiantzan eta hazkunderan. Hori dela eta, ekonomia arlo guztietan moteldu zen. Argitaratu diren

datuen arabera, Txina %6,1 hazi zen eta Ameriketako Estatu Batuak, berriz, %2,3. Bi kasuetan 2018an baino gutxiago handitu zen ekonomia. Txinako ekonomiaren kasuan, esportazioen bultzada txikiagoak hazkundera murriztu zuen, baina gobernuaren helburuen barruan kokatu zen. AEBetan, esportazioek egin zuten ekarpen hutsalari kontsumo pribatuaren eta inbertsioaren dinamismo txikiagoa gehitu zitzaion, egituretan egindako inbertsioak behera egin baitzuen.


TXINAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




AEBETAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



EUROPAR BATASUNEKO BPGA


Urte arteko aldakuntza tasa



2008 2009 2010 2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019

EUROGUNEKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



2008 2009 2010 2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019


Europako Batasuneko eta Euroguneako 2019ko hazkundeak ere argitaratu ditu Eurostatek. Lehen zenbatespen horretan oinarrituta, Kontinente Zaharra %1,4 hazi zen, 2018an lortutako %2,0 hura baino sei hamarren gutxiago. Merkataritzari oso irekita dagoenez eta ekonomia globalean integrazio maila altua duenez, ingurunearen okertzeak eragin handia izan du eremuaren bilakaeran. Oraingoz, gutxi dira ezagutzen diren datuak, baina

itxura guztien arabera, ziurgabetasun globalak kalte egin die ekonomia nagusiei. Hala, Frantziarako kalkulaturako hazkundera %1,2koa da, 2018an lortutakoa baino puntu erdi bat txikiagoa, eta Espainiakoa, berriz, %2,0koa. Euroguneak, bestalde, beherezko joera nabarmenagoa izan zuen. Hain zuzen ere, eremu horretako BPGak %1,2 egin zuen gora, hots, aurreko erregistroa baino zazpi hamarren gutxiago.

INEk argitaratutako lehen kalkuluaren arabera, Espainia %2,0 hazi zen 2019an, hau da, 2018an lortutako balioa baino lau hamarren gutxiago, baina Euroguneak izan zuen erregistroaren nabarmen gaintetik. Barne eskariak bizitasuna galdu zuen, krisian atzeratuta geratu zen ondasun iraunkorren kontsumoaren agortzearen ondorioz, eta batez ere enpresen inbertsioari eragin zion ziurgabetasunaren ondorioz. Erritmo txikiago hori, neurri batean, kanpo sektoreak konpentsatu zuen, ziurgabetasun globala handia zen arren, lau hamarren eman baitzizkion jarduerari. Lan merkatuari dagokionez, enplegua %2,3 hazi zen eta 406.1000 lanpostu garbi ekarri zituen urtebeteko epean.

ESPAINIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




2008 2009 2010 2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019

Iturria: NDF, BEA, Eurostat eta INE.

Munduko ekonomia egonkortzen ari da

MUNDUKO BPG-A

Urte arteko aldakuntza tasa




NDFk argitaratutako azken txostenaren arabera, ekonomian oinarri sendoak daude oraindik, eta beheranzko arriskuak murriztu egin dira. Hain zuzen ere, manufakturen jarduera eta nazioarteko merkataritza inflexio puntu batera iristen ari direlako zantzuak daude, AEBen eta Txinaren arteko tentsioak gutxitu egin dira eta akordiorik gabeko Brexit bat gerta daitekeelako beldura txikiagoa da orain. Hala eta guztiz ere, egonkortze hori Indian jarduera ekonomikoaren ustekabeko emaitza negatiboek indargabetu dute, eta horrek aurreikuspenen beheranzko berrikuspena ekarri du.

NDFREN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2019	2020	2021	2020	2021
Munduko ekonomia	2,9	3,3	3,4	-0,1	-0,2
Ekonomia aurreratuenak	1,7	1,6	1,6	-0,1	0,0
AEB	2,3	2,0	1,7	-0,1	0,0
Eurogunea	1,2	1,3	1,4	-0,1	0,0
Alemania	0,5	1,1	1,4	-0,1	0,0
Frantzia	1,3	1,3	1,3	0,0	0,0
Italia	0,2	0,5	0,7	0,0	-0,1
Espainia	2,0	1,6	1,6	-0,2	-0,1
Erresuma Batua	1,3	1,4	1,5	0,0	0,0
Japonia	1,0	0,7	0,5	0,2	0,0
Garatzen ari diren herrialdeak	3,7	4,4	4,6	-0,2	-0,2
Txina	6,1	6,0	5,8	0,2	-0,1
India	4,8	5,8	6,5	-1,2	-0,9
Errusia	1,1	1,9	2,0	0,0	0,0
Brasil	1,2	2,2	2,3	0,2	-0,1


EKONOMIA AURRERATUEN BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




GARATZEN ARI DIREN EKONOMIEN BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




AEB-ETAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



ERRESUMA BATUKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




Hain zuzen ere, NDFk urtarrileko txostenean kalkulatu du munduko ekonomia %3,3 haziko dela 2020an, eta %3,4, berriz, 2021ean. Datu horiek hamarren bat eta bi hamarren beherapena dakarte, hurrenez hurren, joan den urriko aurreikuspenekin alderatuta.

Ekonomia aurreratuentzat espero den egonkortasunaren artean, Espainiarentzat egindako beheranzko berrikuspena nabarmentzen da. Barne-ekariaren eta esportazioen moteltzea hasieran aurreikusitakoa baino nabarmenagoa izan zen 2019an, eta horrek 2020ko bilakaera ekonomikoa baldintzatuko du. Euroaren eremuak, bestalde, gora egingo du, kanpoko eskarian aurreikusitako hobekuntzei esker.

Garapen bidean dauden ekonomiei dagokienez, NDFk %4,4ko hazkundea aurreikusten du 2020rako, aurreko iragarpena baino bi hamarren txikiagoa.

ESPAINIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: NDF.



HILABETEKO LABURPENA

2019ko balantze ekonomikoa

Berriki ezagutu da Eurostatek Europar Batasun osorako eta Eurogunerako argitaratzen dituen kontu ekonomikoen aurrerapena. Lehen kasuan, laugarren hiruhilekoko igoera %1,1 izan da. Beraz, urte osoko emaitza %1,4ra iritsi da. Eurogunerako datuak, hurrenez hurren, %1,0 eta %1,2 dira. Beraz, **agerikoa da urtean zehar Europak bizi duen apaltzeko prozesua.**

Era berean, INEk Espainiako hiru hilean behingo kontabilitatearen aurrerapena argitaratu du. Bertan, laugarren hiruhilekoan BPGren hazkundea %1,8 izan dela zenbatetsi du. Beraz, moteltzeko prozesu leuna ere hauteman da urte osoan zehar, %2,2 batekin hasi zena. Urteko batez bestekoa %2,0an geratu da, 2018ko datua baino lau hamarren beherago. Enpleguari dagokionez, hiruhilekoaren gorakada %2,0 izan zen, baina benetan lan egindako orduak %1,4 baino ez ziren hazi. **Horrek azaltzen du langile bakoitzeko produktibitatea negatiboa izatea, baina ordukoa lau hamarren handitzea.**

Baina konfiantza pixkanaka itzultzen ari zaie Europako eragile ekonomikoei. Europako Batzordeak argitaratzen duen sentimendu ekonomikoaren indizeak datu ona eskaini zuen urtarrilean, bai Europar Batasun osoarentzat, bai herrialde nagusientzat, Espainia salbuespena delarik. Hain zuzen ere, Europar Batasunak 101,3ko balioa jaso zuen, azken sei hilabeteetako handiena dena eta batez besteko historikoa-ren (100) gainetik dagoena. Alemania 101,8ra igo da, industriaren hobekuntza leun bati esker, eta Frantziak bultzada hartu du 104,1eraino. Espainiak indar pixka bat galdu du, baina 102,0an dago.

EAEko ekonomiarentzat, Eustatek laugarren hiruhilekoaren eta urte osoaren aurrerapena argitaratu ditu. Bi kasuetan, igoera %2,2 da. Horrek adierazten du **2018ko bigarren erditik bizi den moteltzea galgatu egin dela, oraingoz behintzat.** Urteko datuek intentsitatea galdu dela adierazten dute, 2018an lortutako %3,0tik 2019ko %2,2ra. Moderazioko zortzi hamarren horiek munduko ekonomiaren eta Eurogunearen hazkundea galdu dituen zazpi hamarren eta AEBek zein Europar Batasunak gutxitu dituzten sei hamarren antzekoak dira. Beraz, **EAEko ekonomiak ez du portaera diferentzialik erakutsi zikloaren fase honetan.** Oharrak azaltzen duenez, industriaren gorakada leuna gertatzen ari da, eta zerbitzuek tonu hedakorra izaten jarraitzen dute.

Enpleguaren arloan, kontu ekonomikoek zenbatetsi dute lanaldi osoko lanpostu baliokideen kopurua urte horretan %1,6 igo zela, hau da, gaur egun EAEko ekonomiak, bere BPGa lortzeko, 2018an baino 15.600 lanpostu gehiago eskaintzen dituela. Datu on hori berretsi egiten da hilabete honetan ere argitaratu diren lan merkatuaren estatistiken analisiarekin. BJA eta Biztanleria Aktiboaren Inkestaren arabera, enplegua %1,0 baino gehiago handitu zen, biztanleria aktiboa %0,4 hazi zen eta, ondorioz, langabezia dauden pertsonen kopurua %6,0tik gora murriztu zen. Horri esker, laugarren hiruhilekoko langabezia tasa %9,0tik pixka bat gorago kokatu zen, eta **legegintzaldiaren amaieran langabezia tasa %10,0tik behera jaisteko Eusko Jaurlaritzaren helburua bete zen.**

ESTADÍSTICA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT
Urte arteko aldakuntza tasa

	2018	2019	2018		2019		
			IV	I	II	III	IV
BPG	3,0	2,2	2,6	2,2	2,2	2,1	2,2
Barneko azken kontsumoa	2,5	—	2,2	2,1	1,9	2,0	—
Familien kontsumoa	2,7	—	2,5	2,2	1,9	1,8	—
Administrazioaren kontsumoa	1,6	—	1,3	2,0	2,0	2,4	—
Kapital eraketa gordina	4,7	—	4,6	4,0	2,5	2,2	—
Barne eskaria	3,0	—	2,8	2,6	2,0	2,0	—
Esportazioak	3,0	—	0,7	-1,4	2,8	-0,9	—
Inportazioak	3,0	—	1,1	-0,8	2,6	-1,0	—
Lehen arloa	7,9	—	15,9	4,6	-0,1	-1,8	—
Industria	2,5	—	0,3	0,6	0,8	0,7	—
Eraikuntza	4,1	—	6,2	4,8	2,9	2,9	—
Zerbitzuak	2,7	—	2,7	2,6	2,6	2,7	—
Balio erantsi gordina	2,8	—	2,4	2,2	2,2	2,1	—
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	4,9	—	3,8	2,2	1,9	2,0	—
Enplegua	2,6	1,6	2,3	1,8	1,7	1,6	1,3

IRAILEKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA
Urte arteko aldakuntza tasa

	2019		2020			2019	2020
	IV	I	II	III	IV		
BPG	2,1	2,0	1,9	1,8	1,8	2,2	1,9
Barneko azken kontsumoa	2,0	1,9	1,8	1,7	1,7	2,0	1,8
Familien kontsumoa	1,9	1,9	1,8	1,7	1,7	2,0	1,8
Administrazioaren kontsumoa	2,2	2,0	1,8	1,8	1,9	2,1	1,9
Kapital eraketa gordina	2,4	2,5	2,5	2,8	2,9	2,8	2,7
Barne eskariaren ekarpena	2,2	2,1	2,1	2,0	2,1	2,3	2,1
Kanpo eskariaren ekarpena	-0,1	-0,1	-0,2	-0,2	-0,3	-0,1	-0,2
Lehen arloa	-0,5	-2,0	-4,2	-3,4	-4,7	0,5	-3,6
Industria	0,9	0,7	0,9	1,3	1,5	0,7	1,1
Eraikuntza	2,8	2,8	2,6	2,4	2,4	3,4	2,5
Zerbitzuak	2,6	2,5	2,3	2,1	2,1	2,6	2,3
Balio erantsi gordina	2,1	2,1	1,9	1,8	1,9	2,2	1,9
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,0	1,7	1,8	1,7	1,7	2,0	1,7
Enplegua	1,4	1,3	1,2	1,1	1,1	1,6	1,2

EAĒKO AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK
Urte arteko aldakuntza tasa

	2019	2020		2019	2020
Confebask (19-12)	2,2	1,9	Hispalink (20-01)	1,9	1,7
Laboral Kutxa (19-12)	2,2	1,8	CEPREDE (20-01)	1,9	1,7
Funcas (06-19)	2,2	—	BBVA (20-01)	1,6	1,5

ESTADÍSTICA ERANSKINA.ESPAINIAKO EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE
Urte arteko aldakuntza tasa

	2018	2019	2018		2019		
			IV	I	II	III	IV
BPG	2,4	2,0	2,1	2,2	2,0	1,9	1,8
Kontsumo pribatua	1,8	1,1	1,2	1,1	0,8	1,4	1,2
Kontsumo publikoa	1,9	2,2	2,2	2,3	2,2	2,2	2,2
Kapital finkoaren eraketa gordina	5,3	1,9	3,5	4,7	0,9	2,4	-0,3
- Aktibo finko materialak	6,2	1,7	4,0	5,6	0,7	2,3	-1,5
- Eraikuntzan	6,6	0,8	5,7	4,0	2,1	0,9	-3,5
- Ekipamendu ondasunetan	5,7	2,6	1,4	7,9	-1,8	3,9	0,9
- Jabetza intelektualaren produktuak	1,1	2,8	1,0	0,4	2,0	3,3	5,6
Nazio eskaria (ekarpena)	2,6	1,5	2,0	2,0	1,2	1,8	1,2
Esportazioak	2,2	2,3	0,1	0,4	2,1	3,0	3,7
Inportazioak	3,3	1,2	-0,3	-0,1	-0,2	3,1	2,1

BPGAREN AURREIKUSPENAK .BESTE ERAKUNDE BATZUK
Urte arteko aldakuntza tasa

	2019	2020		2019	2020
AFI	1,9	1,7	IEE	1,9	1,5
Axesor	2,0	1,6	Intermoney	1,9	1,6
BBVA	1,9	1,6	Repsol	1,9	1,5
Bankia	1,9	1,5	Santander	1,9	1,7
CaixaBank	1,9	1,5	Solchaga Recio & asociados	1,9	1,5
Cámara de Comercio España	2,0	1,7	Consenso (media)	1,9	1,6
Cemex	1,9	1,6	Gobierno (10-2019)	2,1	1,8
CEEM-URJC	2,0	1,6	Banco España (12-2019)	2,0	1,7
CEPREDE-UAM	2,0	1,7	Comisión Europea (11-2019)	1,9	1,5
CEOE	1,9	1,6	FMI (01-2020)	2,0	1,6
FUNCAS	1,9	1,5	OCDE (11-2019)	2,0	1,6
ICAE-UCM	1,9	1,7	Consensus Forecast (01-2020)	2,0	1,6

Iturria: FUNCAS, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa, CEPREDE, ELGE, NDF, Europar Batzordea, The Economist eta Consensus Forecast. AFI: Analistas Financieros Internacionales; ICAE-UCM: Instituto Complutense de Análisis Económicos-Madrileko Unibertsitate Konplutentse; ICO: Instituto de Crédito Oficial; IEE: Instituto de Estudios Económicos; IFL-UC3M: Flores de Lemus Institutua-Carlos III Unibertsitatea Madril; NDF: Nazioarteko Diru Funtza; ELGE: Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea.

ESTADÍSTIKA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

BPGAREN HAZKUNDEA Urte arteko aldakuntza tasa

	2018	2019	2018		2019		
			IV	I	II	III	IV
AEB	2,9	2,3	2,5	2,7	2,3	2,1	2,3
Txina	6,6	6,1	6,4	6,4	6,2	6,0	6,0
Japonia	0,8	—	-0,3	0,8	0,8	1,9	—
Kanada	1,9	—	1,8	1,5	1,9	1,7	—
Europar Batasuna	2,0	1,4	1,5	1,7	1,4	1,4	1,1
Eurogunea	1,9	1,2	1,2	1,4	1,2	1,2	1,0
Alemania	1,5	0,6	0,6	1,0	0,3	0,5	—
Frantzia	1,7	1,2	1,2	1,3	1,4	1,4	—
Erresuma Batua	1,4	—	1,4	2,0	1,2	1,1	—
Italia	0,8	—	-0,1	0,0	0,1	0,3	—
Herbehereak	2,6	—	2,1	1,9	1,6	1,8	—

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

CONSENSUS FORECAST. 2020KO URTARRILA Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2020	2021	2020	2021	2020	2021
AEB	1,9	1,9	2,1	2,1	3,6	3,7
Txina	0,4	0,8	0,6	0,6	2,4	2,4
Japonia	1,6	1,8	1,9	1,9	5,7	5,7
Kanada	1,2	1,4	1,4	1,5	—	—
Europar Batasuna	1,0	1,2	1,3	1,4	7,5	7,4
Eurogunea	0,9	1,0	1,5	1,5	5,1	5,1
Alemania	1,2	1,2	1,2	1,3	8,2	8,0
Frantzia	1,1	1,4	1,7	1,9	4,0	4,2
Erresuma Batua	0,4	0,6	0,8	1,1	9,8	9,8
Italia	1,6	1,6	1,0	1,4	—	—
Herbehereak	1,4	1,4	1,6	1,6	—	—

Iturria: Consensus Forecast.